

## GAKO EKONOMIKOAK

- Finantza-entitate batzuen arazok konfiantza-krisia eragin dute banku-sektorean, eta, horren ondorioz, agintariak azkar ari dira esku hartzen kutsatze-efektua saihesteko. Horrek guztiak nolabaiteko hegakortasuna sortzen du merkatuetan.
- Itxiera positiboak burtsa nagusi gehienetan.
- Irabaziak errenta finkoan, zorraren interes-tasen jaitzierengatik.
- Euroak indarra berreskuratzen jarraitzen du dolarraren aldean. Jaitziera gehiago izan ditu petrolioaren prezioak.

## MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Martxoan, alerta-foku berri bat sartu zen merkatuetan, eta bigarren mailan utzi zuen gainerako guztia. Banketxe batzuen finantza-, erregulazio- eta gainbegiratze-arazok alarmak piztu zituzten. Nahiz eta gertakari isolatuak izan (Silicon Valley Bank, Signature Bank eta Credit Suisse), eta ezin diren likidezia- eta kaudimen-estandar sendoenak dituzten AEBko eta Europako banku handietara estrapolatu, banku-sektorea konfiantza-krisi baten aurrean kaltebera ikusteak presaz esku hartzera eraman zituen agintariak, kutsatze handiagoak saihesteko eta, hartara, merkatuetan likidezia-tentsio potentzial bat geldiarazteko. AEBko Erreserba Federalak finantza-sistema egonkortzeko eta gordailuak babesteko zenbait neurri adierazi zituen, eta sistema likidezia injektatzeko ekintza koordinatu baten berri eman zuen Txinako Bankuarekin, Japoniako Bankuarekin, Ingalaterrako Bankuarekin, Suitzako Banku Nazionalarekin eta Europako Banku Zentralarekin batera. Hori horrela, agerian geratu zen azken hilabeteetan izandako tasen igoera azkar eta handia ez dela ematen zuen bezain kaltegabea. Banku-sektoreko zurrumbiloez areagotu egin zuten ziurgabetasuna, eta, haren bidez, finantza-baldintzak tenkatzeko beste elementu gehigarri batean pentsarazi zuten. Banku zentralak dagoeneko aplikatu dituzten tasa-igoerek eta finantza-sektoreak finantza-baldintzak gehiago gogortzeko azkartu egingo lukete hazkundearen eta inflazioaren gaineko beherantzko eragina. Horren ondorioz, merkatuek laster kontuan hartuko lukete tasen igoeraren ziklo-amaiera, batez ere AEBko Erreserba Federalarena, eta tasak jaitsi ere egingo lirake 2023aren amaiera baino lehen. Inguruabar horietan, Europako Banku Zentralak, AEBko Erreserba Federalak eta Ingalaterrako Banku Zentralak bilerak egin zituzten. Europako diru-agintaritzak oinarritzko 50 puntu igo zuen interes-tasa, inflazioa berriro % 2an kokatzeko. Ostean emaniko hitzaldian, Christine Lagarde ere prest agertu zen behar izanez gero esku hartzeko, eta gogorarazi zuen "tresna guztiak" dituela sektoreari laguntzeko. AEBko Erreserba Federalak oinarritzko 25 puntu igo zuen interes-tasa, eta emaniko mezuan iradoki zuen egungo % 5a izan litekeela helmuga-maila. Era berean, finantza-krisiak jarduera ekonomikoan izan zezakeen eraginaz ohartarazten zuen, eta beherakada bat aurreikusi zuen Amerikako Estatu Batuetako barne-produktu gordinean. Ingalaterrako Bankuak, bestalde, oinarritzko 25 puntu igo zuen interes-tasa: murriztu egin zuen igoeren erritmoa, finantza-merkatuetan zurrumbiloez areagotu egin zuen. Azkenik, datu makro garrantzitsu batzuk argitaratu dira. Europan, Euroguneko PMLa bizkortu egin zen martxoan: bai Alemanian, bai Frantzian, azken hamar hilabeteetako mailarik handienean kokatu zen adierazle hori. Horretaz gainera, KPIa moteltzen ari zen eurogunean, energiaren prezioek aurreko ekitaldiarekin alderatuta izan duten beherakadaren ondorioz. Hala ere, azpiko tasak gora egin zuen, aurreikusitakoaren ildotik. Amerikako Estatu Batuetan, kontsumo pribatuko deflatoreak irakurketa positiboa zuen, eta azpiko kontsumo pribatuaren deflatoreak arinki moderatzen zituen inflazio-tentsioak.

## ERRENTA ALDAKORRA

Burtsek hegakortasun handiko hilabetea izan zuten 'finantza-krisiaren' ondorioz. Azkenean baretu egin zen krisi hori, eta lasaitasuna ekarri zuen bueltan finantza-merkatuetara. Amerikako Estatu Batuetan, tonua positiboa izan zen. Indize nagusien artean, S&P-500 eta Dow Jones % 3,51 eta % 1,89 igo ziren, hurrenez hurren, eta Nasdaq indizeak, berriz, % 9,46 egin zuen gora, teknologiaren portaera onari esker. Europa aldean, mistoa izan zen tonua. Eurostoxx % 1,81 igo zen, eta lbexak, ostera, % 1,73 egin zuen behera, bankuen portaera txarrak zigortuta. Munduko gainerako herrialdeetan, Japoniak % 2,17ko hazkundera izan zuen, eta emergenteek, oro har, % 2,73koa.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2023ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	9.232,50	EUR	%-1,73	%12,19
EUROSTOXX-50	EUROPA	4.315,05	EUR	%1,81	%13,74
S&P-500	AEB	4.109,31	USD	%3,51	%7,03
DOW JONES	AEB	33.274,15	USD	%1,89	%0,38
NASDAQ 100	AEB	13.181,35	USD	%9,46	%20,49
NIKKEI-225	JAPONIA	28.041,48	JPY	%2,17	%7,46
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	990,28	USD	%2,73	%3,54
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.791,40	EUR	%2,83	%7,25

Iturria: Bloomberg

## ERRENTA FINKOIA

Zor-bonuek irabaziak izan zituzten maila globalean. Alemaniako 10 urterako tasak oinarritzko 36 puntu egin zuen behera, eta AEBkoak, berriz, oinarritzko 45 puntu behera. Espainiako 10 urterako tasak oinarritzko 30 puntu galdu zituen, eta oinarritzko 6 puntu gehiagora igaro zen Alemaniakoaren aldean. Italiakoak, berriz, oinarritzko 38 puntu egin zuen behera, eta oinarritzko 2 puntu murriztu du Alemaniakoarekin zuen diferentzia. Errenta finko pribatuari dagokionez, kreditu-kalitate onenekoak oinarritzko 6 puntu egin zuen gora, eta txarrenak oinarritzko 26 puntu areagotu zuen aldea.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2023ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	3,04	0,29	0,90
	6 HIL.	3,34	0,05	0,65
	12 HIL.	3,62	-0,10	0,33
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	2,68	-0,45	-0,08
	5 URTE	2,31	-0,43	-0,27
	10 URTE	2,29	-0,36	-0,28
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	2,91	-0,45	-0,01
	5 URTE	2,94	-0,42	-0,22
	10 URTE	3,30	-0,30	-0,36

Iturria: Bloomberg

## DIBISAK ETA LEHENGAIK

Dolarrak galdu egin zuen berriro ere gainerako dibisen aurrean. Haren aldean, euroak % 2,49 berreskuratu zuen balioa, eta 1,0839 €/€ balioarekin itxi zuen gurutzaketa. Liberak, bestalde, apur bat berreskuratu zuen balioa euroguneko dibisaren aldean. Lehengaietan, petrolioak % 3,36 jaitzi zen eta urrea, berriz, % 7,79 igo.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg